

Ozeanoaren konkista

Eman dezagun ikaragarriko ur eremu zabal, handi eta luze baten ondoko herrixka. Irudimenaren zorroztea ezinbestekoa da, ipuin honetan den-dena izanen baita izigarri, harrigarri eta neurrigabe...

Liburuaren irudietan sartuz, uraren kulunka ikusiko duzue, ozeanoaren mugimenduak entzunen eta aire freskoak ekarri itsas langar gazia sentituko... Irudimena garatuz bainuontzi ttipi bat ozeano handi bilaka daiteke: mugarik gabeko abentura toki!

Istorio hau aspaldikoa da. Garai hartan ez zen autorik, lantegirik, telebistarik, telefonorik, ez eta elektrizitaterik ere. Bizitzeko, jendeak lurra lantzen zuen eta ihizin ari zen, baina ozeanora ez zen sekula hurbiltzen.

Denak ziren haren izaera aldakorraren beldur: batzuetan jabal-jabala zen, baina bet-betan haserre zitekeen. Haren hedadurak ere jendea ikaritzen zuen. Mugagabeko zabaltasunetik hara zer ote zen? Mundua urrun hartan bukatzen ote zen?

Ur handietan ageri ziren basihizi lazgarriek zuten jendea gehienik iziarazten: uretik kanpo ezin sinetsizko saltoak egiten zituzten, eta erortzean ur azala urratzen, gaitzeko zalaparta eta uhinak sortuz... Ez zen munduan izaki arraroago eta larriagorik. «Munstro» izena eman zieten. Munstro horiek izaki sorgindu eta madarikatuak baizik ez zitezkeen izan; halaber haien bizilekuak. Beraz, itsasora hurbiltzea debekatua zen. Zinez debekatua.

Garai hartan, Amets izeneko haur bat bizi zen itsasbazterreko herrixka batean. Haur ernea zen, denak jakin nahia, batere ez ingurukoen beldur. Herritarrek ez bezala, hark ura oso gustukoa zuen! Ozeanoa lasai zelarik, gordeka joaten zen plisti-plasta ibiltzera. Etxetik ateratzean, Ametsek Lagun xakurra gurutzatzen zuen beti, adineko bati milika, edo haurrekin jostetan. Herritar guziek izigarri maite zuten Lagun... herriko maskota zen gisa batez errateko. Xakurra Ametsen ondotik joaten zen usu, eta urean jostatzen ziren biak, nehork ikusten ez zituela segur zirelarik.

Ontsa baitzekien haurrak herriko jendeak zer kontatzen zuen: —Uhinek ur bazterrera hurbiltzen den oro eramaten dute, eta itsaso madarikatuak irensten du betiko! Baina Amets arrunt liluratua zen neurrigabeko ur eremuaren aitzinean, eta zoratua hari hain hurbil izateaz.

Ohartua zen urpean izaki ttipi dirdiratsuak bazebiltzala, iduriz ez gaiztoak. Batzuek kuskuko koloretsuak zituzten, euria delarik etxe inguruetan agertzen diren bare-kurkuiluak baino askoz ederragoak! Tanpez desagertzen zirelarik —Nora zoazte ihesi? —zioen usu bere baitan— Zuen ondotik joan nahi nuke, eta munstro handiak ezagutu...

Herritarrak galdekatzen zituelarik, bakoitzak bere kondaira bazuen. Nehor ez baitzitzaien izaki haiei egundaino hurbildu, lehorretik ikusiaren arabera itxurak asmatzen zizkieten.

Aitatxi bere buruaz segur zen:

—Munstro horiek urpeko erraldoiak dira. Gau eta egun urean jostatzen dira eroak bezala. Urrunean ikusiak ditut burua uretik ateratzen, goiti eta beheiti, zeinek tua urrunago bota. Hortz handiak dituzte eta ile luze-luzeak, moto bitxi batean bildurik. Zinez basihizi bereziak dira urpeko mamu horiek...

Aitak irriz entzuten zuen istorioa:

—Ez dut mamu horietan sinesten, batere! Ene ustez elefanteak dira, noizbait urera eroriak eta itsasoaren madarikazioak han egotera kondenatuak. Ez zarete ohartu urrunetik elefante buru baten itxura dutela, eta tronpa ur azpitik arnasteko moldatua dutela?

Amatxik, haatik, gizonek irudimen gehiegi zutela zioen:

—Munstroak dira, bai, ez mamu, ez elefante, ez eta beste edozein izaki ezagun ere! Infernuko basihizi buruhandiak baizik, zango luzedunak, zolan ibiltzeko gisan. Nola atera lezakete, bestela, burua hain aise uretik?

Erantzun guziak entzunik, haurrak ez zekien egia non hasten zen eta non bukatzen...

Belagilea zen herriko jakintsuena, eta hark bazuen beste azalpenik:

—Ezin daiteke munduan halako animalia erraldoirik izan, deabrukeria baten ondorioz ez baldin bada. Gure arbasoek beti erran digute itsasoa madarikatua dela! Ez da deus onik hartan eta ez zaio sekula hurbildu behar, begi gaiztoa ez badugu herrian bildu nahi.

Ordu arte, nehork ez zuen pisuzko argumenturik izan haren erranen ezeztatzeko. Itzal handiko jakintsuaren aitzinean, herritar guziak bezala, haurra ere mutu egoten zen. Baina ezin sinets ikusi zuena amets soila zenik.

—Ur bazterrean jostatzen naizelarik, animaliatxo batzuk ikusten ditut, urpean bizi. Munstro larri horiek ez ote dira urpeko animalia handiak?

Baina ez zuen horien berri ematen ahal, belagilea sutan jarriko zen, eta herritarrak begi gaiztoaz izituko...

Ametsek isilik egon behar.

Jakin-minez eta bere buruaz fida:

—Belagilea oker dela erakutsiko dut! —deliberatu zuen Ametsek— Urpeko izaki horiek animalia soilak baizik ez direla frogatzeko eta haien ezagutzeko bide bakarra dut: haietarik baten harrapatzea eta herrira ekartzea. Baina nola egin? Haiei nola hurbil? Nola kausi? gogoetatzen zuen haurrak...

Ametsek egunak iragan zituen gordeka itsasbazterreko gertakariei so. Ohartua zen tenpesta biharamunetan zuhaitz adarrak eta enborrak ur azalean dantzan egoten zirela. Itsas ainara batzuk ere ikusi zituen, egur pusken gainean, noiztenka harria bezala lo, urak kulunkaturik. —Txorien gisan gu ere enborren gainean ibil gintezke; aski dut adar zenbait elkarri lotzea, itsas-orga gisako baten egiteko! —bururatu zitzaion halako batean.

Dozena bat adar elkarri lotuz, xakurra eta biak ozeanoan ibiltzeko almadia eraiki zuen...

Almadia eraiki eta, Amets eta Lagun egun guzietan joaten ziren herrixka ondoko urmael batera. Itsasotik munstro baten ekartzeko, xakurrak almadiatik inguruetakoko behiak harrapatzen ikasi behar izan zuen lehenik, kosta ahala kosta. Anitz trebatu ziren: berak xakurra almediara iganarazten zuen, almadia bultzatzen, eta xakurrak inguruko behiak buztanetik harrapatzen.

Azkenean, Munstroen sasoi heldu zen: ikasia behin betikoz praktikan jartzeko mementoa, erran nahi baitu haietarik baten harrapatzekoa.

Amets eta xakurra itsasbazterrean joan ziren orduan. Bihotza taupaka, itsasoari begira jarri ziren, munstroen beha. Halako batean, ur ilunetik basihizi bat atera zen jautsian. Xakurra almediara tanpez igan zen, eta haurrak indar guzietan itsas zabalera buruz bultzatu zuen. Laster ohartu zen ez zuela arras norabide egokia hartzen, itsasoan urmaelean baino mugimendu gehiago baitzen, eta ez zuen ontziaren gidatzeko sistemarik pentsatu...

Binbilika zihoan almadiatik, xakurrak haurrari begiratzen zion, soa arranguraz betea. Berriz ere, munstroa jautsian atera zen uretik, ahoa zabal-zabalik, eta Lagun klikatu zuen, almadia eta guzi...

—Laguun! oihukatu zuen haurrak ikaraturik.

Zur eta lur gelditu zen ur azalari so, bizi seinale baten beha. Baina deusik ez. Xakurra munstroaren sabelean desagertua zen.

Ametsek indarrak bildu zituen orduan:

—Ez haut abandonatuko, Lagun, nik dut munstro hori harrapatuko!

Bihotza sustaturik, etxera joan zen lasterka eta gogoetan hasi, pentsamenduak eta ekintzak ahal bezain ongi juntatuz. Zalu ibili behar zuen, alimaleko izakia itsas zabalera itzuli aitzin. Hasteko, laguntzaile talde bat osatu nahian etxez etxe abiatu zen:

—Otoi! Hel! Munstro batek Lagun irentsi du! Haren sokorritzera joan behar gara!

Jendea ez zen bero eta Ametsek zenbait erreportxu ere bildu zituen itsaso madarikatura hurbildu baitzen. Baina laster oroitu ziren herriko adinekoei zer bihotz sosegu eta hurrei zer bozkario ekartzen zien Lagunek, eta beldurrak gainditurik talde ttipi bat bildu zen maskotaren bila joateko.

Ametsek, munstroaren erasoei ihardukitzeko barku handi bat sortu gogo zuen, dozena bat pertsona eramateko gisan. Taldekide bakoitzak ontziaren aitzinarazteko zurezko taula luze eta zabal bat zukeen. Eta azkenik, lantza zenbait sokez ontziari lotuz, basihiziaren harrapatzeko eta itsasbazterreraino ekartzeko sistema bururatu zitzaion.

Elkarlanari esker, oren batzuen buruan dena prest zuten. Halako batean, kostalde gainaldean bazterrei so zegoen barrandaria oihuka hasi zen:

—Munstroa hor da!!!

Garraio-molde berria aise bideratu zuten arraunei esker eta berehala basihiziari hurbil gertatu ziren.

Ametsek arpoia azkarki atxikitzen zuen, punta zorrotza beheiti buruz, animalia noiz agertuko zain. Isiltasun osoan, denak urari so zeuden, seinalearen beha. Norbaitek animalia ikusi zuen uhinen artean. Arraunak urean sartu zituzten eta indar guztiak eman haraino bogatzeko. Haurrak hatsa atxiki zuen, eta txaluparen brankak munstroaren bizkarra hunkitu orduko, punta zorrotza larru gogor eta ilunean sartu zion. Animalia erraldoia urperatu zen, ikaragarritzko uhina sortuz eta barkua kasik xehakatu. Ontziari azkarki lotu zitzaizkion denak, urera ez erortzeko. Lantza eta ontzia lotzen zituen soka tinkatu zen eta munstroak bulta batez ibili zituen eskuin eta ezker. Hats hartzera ateratzen zen aldi bakoitz, Ametsek beste arpoi bat aurtikitzen zion, eta azkenean, indargabeturik, basihizia ur azalean agertu zen, hilik. Barkua doi bat andeatua zen baina iharduki zuen, eta taldekideak arraunean hasi ziren itsasbazterrerara buruz.

Hondartzan, beste taldetto bat ihiztarien beha zegoen. Animalia ikusi zutelarik ezin sinetsia izan zitzaion:

—Etxea bezain handia da, ez dugu sekula holakorik ikusi!

Orduan, basihiziaren sabel barnetik saingak entzun zituzten.

—Lagun! —deitu zuen Ametsek, eta munstroaren muturra zabaldu zutelarik, xakurra berez atera zen. Hunkitua zen haurra, loriatua, eta herritarrekin munstroa harrapatzeaz arrunt harro! Bozkario handiko oihuek erakarririk, jendea hondartzara hurbildu zen eta harriturik, munstroa inguratu zuen.

Kalaka eta oihu harrabotsek belagilea ere hurbilarazi zuten. Animalia handiari hurbildu zitzaionlarik, bazterrak isildu ziren. Orduan, ahots batek isiltasuna urratu zuen:

—Belagile gezurtia, itsasoa ez da madarikatua! Munstro horiek animaliak baizik ez dira!

Belagilea jende saldoari buruz itzuli zen:

—Lagunak, ikusten duzuen bezala, egun berezia dugu gaurkoa, egun historikoa. Heroi gazte horrek erakutsi digu denak tronpa gaitzkeela. Gure jakintzak aldakorrek dira. Funtsean, ingurumenaren ulertzea dugu helburu, eta ezagutza berri bakoitzak argitzen gaitu. Orain arte menderatzen nituen ezagutzek eta sinesteek gogo hertsitu didate. Gaurko aurkikuntza zoragarri honi esker mundu berri bat ezagutzen ahalko dugu!

Herritarren goresmen eta esku zarten artean, belagileak ihiztariak eskertu zituen, eta berehala basihiziaren aztertzen hasi zen.

Egun batzuk berantago, denak bildu ziren jakintsuaren ikerketen ondorioen entzuteko. Haren mintzaldia luzaz egon zen herritarren gogoetan. Liburu bat ere idatzi zuen, gaur egun, ondikoz, galdua dena. Haatik, liburu horren izenburuaz denak oroit dira: “Balea eta ozeanoa, jendearen baliabide berriak.” Munstroa “balea” deitu zuen eta animaliaaren ekarpenak xeheki zerrendatu: haragia jateko ona zen eta balea bakar batenaz, pertsona anitz elika zitezkeen. Gainera, urinetik kalitate oneko olio franko egin zitezkeen, eta balea bizarrez zernahi gauza, hala nola aterkiak, orrazeak eta eskuilak. Ozeanoan madarikaziorik ez zegoela aurkitzeak zenbat ekarpen!

Almadia hobetuz, landuz, eta ihiztarien teknikak erabiliz, jendearen biziarazteko baliabideak aurkitu zituzten itsasoan. Orduz geroztik, bizimolde berriari buruz itzuli ziren...

Ametsi esker, itsas arrantza sortu zen!

Begiak hetsirik zituela, aspaldiko beldurrak ezabatu zireneko egun loriosa gogora heldu zitzaion Ametsi. Herritarren bozkariozko oihuak entzuten zituen oraino. Haren izena laudatzen zuten kartsuki... izena gero eta ozenkiago entzuten zen, gero eta ozenkiago...

Ahotsa ezaguna egin zitzaion bat-batean... Alabaina, amaren boza zen!

Bainugelako atea ireki zen:

—Badu bi oren bainuontzian haizela, ametsetan ala? Atera hadi, Amets, eta haugi bazkaltzera!

Haurrak begiak zabaldu zituen. Bainuontziko ur azalean, plastikozko balea ttipi bat fandangoan ari zitzaion parez pare. Eta xaboiontzian, Lagun maitagarria zegoen, geldi-geldirik haurrari so.